



EPEAK

1. ildoa: Euskara jarduerak antolatzeko Lokala edo Aretoa	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 20 eguneko epea.
2. ildoa: San Juan suak	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 20 eguneko epea.
3. ildoa: auzoetako Olentzeroak	Eskaerak aurkezteko azken eguna 2026eko urriaren 20a izango da.
4. ildoa: Korrika 24 (2026 urtea)	2026ko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 20 eguneko epea.
5. ildoa: Euskal Herriko gazteei Getxo eta Getxoren kultur ondarea ezagutzera emateko laguntza.	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 20 eguneko epea.
6. ildoa: Getxoko gazteei Euskal Herria eta euskal ondarea ezagutzera emateko laguntza.	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 20 eguneko epea.

5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntzen deialdi honetarako, **gehienez dagoen kreditua 48.858 eurokoa** izango da. Kreditu hau Getxoko Udalak 2025 urterako onartutako aurrekontuen 4810000 partidatik aterako da **eta era honetan banatuko da:**

1. ildoa	Lokala edo Aretoa	11.760 €
2. ildoa	San Juan	2.625 €
3. ildoa	Olentzeroak:	21.473 €
	• Algortako Olentzeroa	8.032,50 €
	• Areetako Olentzeroa	6.825,00 €
	• Andra Mariko Olentzeroa	3.203 €
	• Romoko Olentzeroa	1.968,75 €
	• Neguriko Olentzeroa	1.443,75 €
4. ildoa	Korrika 2026	6.300 €
5. ildoa	Gazteei Getxo ezagutzera ematea	4.200 €
6. ildoa	Getxoko gazteek Euskal herria eta euskal kultura ezagutzeko	2.500 €

GUZTIRA: 48.858 €

Dirulaguntzak lehia bidez, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira, 7. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta.



6.- GUTXIENEO BALDINTZAK

6. ildoak: GETXOKO GAZTEEI EUSKAL HERRIA ETA EUSKAL KULTURA EZAGUTZERA EMATEKO EGITASMOA

Getxoko gazteei Euskal Herria eta euskal kultura ezagutzera emateko ildo hau, berria da eta ondorengo ezinbesteko baldintzak bete behar ditu:

- Aisialdi jarduera euskaraz burutu behar da bere osotasunean.
- Gazte partaideen gutxienez %80ak Getxon erroldatuta egon behar du.

7.- BALORATZEKO IRIZPIDEAK

6. ildo: GETXOKO GAZTEEI EUSKAL HERRIA ETA EUSKAL KULTURA EZAGUTZERA EMATEKO EGITASMOA

Egitaraua: 80 puntu	Proiektuaren aniztasuna: 30 puntu	<ul style="list-style-type: none"> -Kultur adierazpen ezberdinak ezagutzera emateko egiten den ahalegina. -Ekimenean ezagutuko diren pertsonen aniztasuna; herri ezberdinak ezagutzea, adierazpen anitzak bizitzea; beti ere garaiko Euskal Herri anitza eta bizia ezagutzeko egiten diren ahaleginak, txangoak, bizipenak... -Aurkeztzen den programaren aniztasuna: landuko diren gaiak, jorratu nahi diren esparruak eta abar. -Beste kultura batzuetako pertsonak kontuan hartzea eta bertora etorritako pertsonen adierazpenen ezagutza sustatzea. 		
	Proiektuaren aberastasuna: 25 puntu	Euskalki eta hizkera ezberdinak ezagutzeko aukerarik izan duten ala ez: 8 puntu	<ul style="list-style-type: none"> -Euskararen aldaera 1 ezagutzeko aukera: puntu 1. -Euskararen 2-3 aldaera ezagutzeko aukera eskaintzea: 3 puntu. -4 aldaeratik gora ezagutzeko aukera: 8 puntu. 	
		Euskal kultur ereduak eta eragileekin izandako topaketak, bisitak, interakzioak: 6 puntu	<ul style="list-style-type: none"> -Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 1-3 topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: puntu 2. -Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 4-8 topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: 4 puntu. -Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 9tik gora topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: 6 puntu. 	
		Ezagutu edo bisitatutako Euskal Herriko herri eta ingurumenen aniztasuna: 6 puntu	<ul style="list-style-type: none"> -Ezagututako gunen fisikoak. 1-3 bisita: puntu 1. -Ezagututako gunen fisikoak. 4-8 bisita: 3 puntu. -Ezagututako gunen fisikoak. 9 bisita edo gehiago: 6 puntu. 	
Sustatzen dituen baloreak: aurkeztutako programan zein neurritan landuko diren sustatu nahi diren baloreak: 25 puntu.	<ul style="list-style-type: none"> -Gazteen parte hartzea sustatzea gizarte bizitzan. -Gizarte kohesioa eta solidaritatea sustatzea gazteen artean. -Berdintasuna sustatzea gazteen artean. -Ingurumenaren errespetua sustatzea. -Ekintzailea, berritzailea, dinamikoa izatea. -Erabiltzaileen autonomia sustatzea. -Balioetan sentsibilizatzea sustatzea. 			
Parte hartzaile kopurua: 20 puntu	<ul style="list-style-type: none"> 50-99 erabiltzaile: 5 puntu. 100-149 erabiltzaile: 10 puntu. 150etik gora erabiltzaile: 20 puntu. 			



Atal bakoitzean, dirulaguntzaren kopuru osoa emango zaio eskaera bakarrari; punturik gehien jasotzen duenari alegia.

Ildo bakoitzaren eskaerak egiteko epea amaitutakoan, eskaerarik aurkeztu ez bada, banatu gabeko diru kopurua beste ildo batzuen ondorengo ebazpenetan banatu ahal izango da, finantzaketa urria gertatu bada. Soberakinak gainontzeko ildoetan hainbanatu egingo dira.

8.- DIRULAGUNTZA ZURITZEA

2027ko otsailaren 15era (barne), dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da:

8.1.- MEMORIA

Ildo bakoitzean garatu diren ekimenei buruzko memoria aurkeztu beharko da: parte hartzea, iraupena, antolatzaileak egiten duen balorazioa.

8.2.- BALANTZEA

Jardueraren **gastuen eta diru-sarreraren balantze zehatza**. Jarduera burutzeko beste erakunde publiko edo pribaturen baten dirulaguntza ere jaso baldin bada, gastuen eta sarreraren balantzean zehaztu

8.3.- GASTUEN ZURIKETA

8.3.1. Gastuen zerrenda

Lagundutako jarduera burutzean egon diren **gastu eta sarreraren zerrenda**. Zerrenda honek ondorengoak jasoko ditu: hornitzailea, kontzeptua, kopurua, fakturaren data eta hala badagokio, ordainketa data.

Zerrenda honetan diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren %100 agertu behar da.

8.3.2. Fakturak

Aurreko puntuan adierazitako gastuen zerrendaz gain, **jasotako diru kopuruaren %10 gutxienez suposatzen duten fakturak aurkeztu beharko dira** (fakturak edo bestelako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan froga-balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak). Fakturak diruz lagundutako jarduerarekin lotura behar dute izan eta ez dira sartzen pertsonal gastuak.

Euskara Zerbitzuak hala baderitzo, edozein momentutan eskatu ahal izango du jarduerarekin lotutako beste edozein egiaztagiri.

8.4.- MATERIALA

Dirulaguntza jaso duen jarduerarako publizitatea egin bada: esku-orri, kartel... guztien ale bana.

Justifikatzeko aurkeztutako agiri guztiek dirulaguntza emandako ekitaldi ekonomikoko data izango dute.



Ohar garrantzitsua 5 eta 6. ildoetako dirulaguntzaren justifikazioari buruz:

5. eta 6. ildoen zuriketa, alegia ("*Aisialdi jarduera euskaraz burutu behar da bere osotasunean*"), laguntza jasotzen duen elkarteren erantzukizuneko aitorten baten bidez egin behar da.

Getxoko Udalak edozein momentutan gutxieneko baldintza hauen betetzea egiaztatzeko aukera izango du.